

Amaseigarren Mendeko euskerazko «Miserere» bat

Antziñako euskal-texto berririk agertzen denean, ongi etorri zabala izaten du euskalzale eta euskalarien artean. Legezkoa da. Damurik, ez da olakorik geiegi gertatzen. Orain-tsu ezaguerazi digute amaseigarren mendeko euskarazko gutun bat, Mexican gotzain izandako Zumarraga durangarrarena, eta berri orrek ez ditu gure bazterrak gutxi arrotu.

Gaur, mende beraren azken-aldeko euskal-puska berri bat, edo beintzat gure artean ez-ezaguna dakargu plazara: «Miserere mei» salmoa, euskal-bertsotan. Geroxeago ikusiko dugunez, ez zan guztiz ezagutugabea. Erdal-liburu batean, orain eun eta iru urte (1879), ikusi zuen argia, nolabaiteko argia. Baiña gure artean nork jakin zuen aren berri? Gure bibliografi eta antologiarik ugarienetan iñolazko aipamenik gabe gelditu da. K. Karmelo Etxegarai gazteak, bere gazte-tan erdal-liburu orretan irakurri bazuen ere, bere kolkorako gorde zuen euskal-bertso auen oroitza. Ala, euskaldunontzat argitara ez balitz bezala iraun du gaur arte. Aramaioar batek, Antonio Unzueta karmeldar prailleak, Madrilgo Biblioteca Nacional delakotik berriz atera duen arte.

Sei bat illabete da Madrildik telefono-deia artu nuela. Unzueta adiskideak andik galdera au egiten zidan: «Aizu, amaseigarren mendeko euskarazko Miserere-rik ezagutzen al

da?» Nik ezetz. Geroxeagokorik bai, baiña amaseigarren mendekorik ez genuela ezagutzen. Eta nik ere galde: «Baiña, amaseigarren mendekoa ote da gero?» Eta Unzuetak erantzun: «Bai, itxura guztiek diotenez; Felipe II garrenaren netako paper artean dago». Nere gogoa beingoan Naparroaldera joan zait. Undiano, Arnotegiko ermitau olerkariaren pusken bat ez ote da? Aita Unzueta zatitxo bat irakurtzen asi zait. Eta biok aitor bera egin dugu: Bizkaiko euskeraren antza baduela, baiña, Bizkaikoa ez bada ere, ez dela andik urrutiegikoa.

Unzueta adiskideak laster egin nau berak atera duen kopiaren, eta gero xerokopiaren jabe. Eta biok arriturik gaude. Nola ez duten texto au euskaldunek leenago ezagutu. Zergatik arritu? Garibai ain ezagunaren euskal-esaeren manuskriptoarekin batean aurkitzen dalako Miserere au ere, arekin manuskrito-sorta berean. Zenbat euskaldun esku ez ote da ibilli sorta orretan? Sorta osoak 374 orri osatzen omen ditu, eta Miserere onenak bi orrialde baizik ez; gaiñera, egillearen izenik ere ez du. Orregatik edo, askoren begiak ez zaizkio oartu.

Oarkabezko pekatu onetan ez zen, orraitio, erori, joan den mendean, erdal idazle bat: Fernando de la Vera e Isla. Erdal-poeta onek 1879gn. onako liburu au atera zuen: *Traducción en verso del Salmo L de David / Miserere mei Deus / y noticia de varias versiones poéticas que de dicho salmo se han hecho en lengua castellana / y de sus autores* (Madrid).

Madrilgo seme onek, liburu orren azken aldean, euskalduna eta euskalzaleak izan ditu gogoan eta erderazkoa ez den Miserere au, euskarazkoa au, eskaintzen die atseginsari. Orduko euskal-giroaren jakitun dago, eta euskalzale eta euskeralari askoren atsegingarri izango dalakoan egin du ori. Aladidio berak: «Como muchas personas, que ocupan en el mundo sabio un lugar conspicuo y distinguidísimo, y entre ellas alguna, que es doblemente Príncipe por el nacimiento y por la ciencia, se consagran con tan cariñosa predilección y con tan halagüeño resultado al estudio de la Lengua Vascongada, creo que han de agradecerme mis lectores vascófilos, que les dé íntegra la traducción en dicha lengua del salmo Mi-

serere, que se encuentra al folio 245 del M.S. existente en la Biblioteca Nacional con la signatura G. 139». Eta azpian sartxo au jarri du: «En dicho manuscrito están también, al folio 260, los refranes en Vascuence compuestos por Esteban de Garibai y Zamalloa».

Erdal olerkari onek ezin zezakean eiza au euskaldun eiztariaren eskuetan errazago ipiñi. Baiña gure arteko eiztariak ez gelditu ziren. Ez Prinze Bonapartek, ez beste inork ez du eskertu ain borondate on ori. Guk dakigula, K. Etxegarai bakarrik izan du, euskaldunen artean, Vera madrildarrak egin zigun mesedearen berri.

Ain zuzen, Aita Unzuetak berak aurkitu du K. Etxegarai gastearen karta bat, guri bai Vera orren liburua bera eza-guerazi diguna, eta bai auzi onen giltza eman diguna. Non aurkitu du karta ori? Barbieri musikari ospetsuaren paper artean.

Gauza jakiña da Barbieri musikariak bere *Cancionero musical de los siglos XV y XVI* ateratzeko egin zituen azterlanetan, euskerazko bertso batzuk ere aurkitu zituela, eta ez ulertzen errazak, aurkitu ere. Batek onela du asiera: «Jançu Janto dego Garcigorreta». Zer esan nai zuten itz oiek? Beste askogana bezala, K. Etxegarai gana jo zuen Barbierik argi eske. Eta onek ari eman zion erantzuneko kartan, Vera olerkariaren liburua eta liburu onetan datorren euskerazko «Miserere» aipatzen ditu.

Onela diotsa Barbieriri: «Escribía cada autor a la medida de su capricho, de ahí que hasta ciertos autores de alguna ilustración literaria, como indudablemente debió ser el traductor del salmo Miserere, que manuscrito existe en la Biblioteca Nacional y publica el Sr. Fernando de la Vega e Isla en su interesante libro sobre versiones poéticas, hechas en español, del indicado salmo, escriban las voces bascongadas en una forma tan rara, que a la vuelta de un par de siglos hace difícil una buena interpretación, si no se puede recurrir a un estudio comparativo con otros trabajos de análoga índole, que permitan estudiar la historia de las vicisitudes por que haya pasado el lenguaje escrito».

Etxegarai jaunak egin digun aitorra euskerazko Miserere onen gora beeran ezin egokiago etorri zaigu. Berak esaten digu Vera erdaldunak argitara eman zuen testoa utsez betea dagoela, ezin ulertua dela. Utsez betea da, izan ere. Baiña dituen utsak ez dira guztiak manuskriptoarenak. Uts orien- gatik, Etxegarai jaunak ez zuen texto ori aintzat artu, muzin egin zion. Orrek esan nai du ez zuela manuskripto bera irakurri, eta irakurtzeko gogoia ere joan egin zitzaioela. Edo ta, utsen utsaz, irakurtzeko gogorik ez zitzaioela berotu.

Jo dezagun, bada, orain manuskriptoak ematen digun textora. Ez da egillearena, kopiatzaileren batena bainik. Ez dugu aurkitzen utsik gabe, baiña ez dira, ez, euskaldun irakurle zuur batek ez igartzekoak ere. Ona texto ori, neke andi gabe irakurri dezakegunez. Erdaraz, onako titulu au darama: La traducción del salmo Miserere mei en Lengua bascoingada. Gaurko ortografiara aldaturik ematen dugu.

MISERERE MEI DEUS

*Jaina miseriakordia eduki niaz,
asko dezun ezkeru, miseriakordia.
Borra ezazu, Jaina, maldade enea,
zerren piedadez zeran betea.*

AMPLIUS LAVA ME

*Jaina, garbiago egin nazazu,
bekatu mutastoa kendu egidazu.
Badazagut, Jaina, mere kulpa,
ene kontra dago bekatu enea.*

TIBI SOLI PECAVI

*Bakarrika zindudan zeur ofenditu,
zeure aurrian egin neban bekatu,
zeure i(t)z santuetan justu irten zengun,
justo zintzaenak benzutu zintzan.*

ECCE ENIM IN INIQUITATIBUS

*Konzebitu minzan maldadeetan,
konzebitu munduan amak kulpaetan;
beti zenduan, Jaina, egia amatu,
sekretoak neuri manifestatu.*

ASPERGES ME DOMINE

*Bustnazanean zure graziak
kenduko dirazut kulpa guztiak;
zuri nazanean munduan errurik
egite ez izango neure parerik.*

AUDITUI MEI DABIS

*Bein izango den guziz andia
ene belarriak, Jaina, alegria;
orduan ene ezur humillatuak
egongo dirade konsolatuak.*

AVERTE FACIEM TUAM

*Aparta ezazu zeure bistatik
ene bekatuak presenziatik.
arren, ene kulpa gusti gustiak
borra biza, Jaina, zure graziak.*

COR MUNDUM CREA IN ME

*Ene bio(t)za, Jaina, garbi ezazu,
ene entrañetan renoba ezazu
espíritu malizia bagea,
zeure ondasunen deseazalea.*

NE PROFICIAS ME

*Ez kendu, Jaina, begiok niganik,
kendu ez zaitezala presenziatik.
Ez, Jaina, apartatu bio(t)z enetik
espíritu santua entrañetatik.*

Etxegarai jaunak egin digun aitorra euskerazko Miserere onen gora beeran ezin egokiago etorri zaigu. Berak esaten digu Vera erdaldunak argitara eman zuen textoa utsez betea dagoela, ezin ulertua dela. Utsez betea da, izan ere. Baiña dituen utsak ez dira guztiak manuskritoarenak. Uts orientatik, Etxegarai jaunak ez zuen texto ori aintzat artu, muzin egin zion. Orrek esan nai du ez zuela manuskrito bera irakurri, eta irakurtzeko gogoia ere joan egin zitzaioela. Edo ta, utsen utsaz, irakurtzeko gogorik ez zitzaioela berotu.

Jo dezagun, bada, orain manuskritoak ematen digun textora. Ez da egillearena, kopiatzaillaren batena baizik. Ez dugu aurkitzen utsik gabe, baiña ez dira, ez, euskaldun irakurle zuur batek ez igartzekoak ere. Ona texto ori, neke andi gabe irakurri dezakegunez. Erdaraz, onako titulu au darama: La traducción del salmo Miserere mei en Lengua bascongada. Gaurko ortografiara aldaturik ematen dugu.

MISERERE MEI DEUS

Jauna miseriakordia eduki nizaz,
asko dezun ezkerro, miseriakordiaz.
Borra ezazu, Jauna, maldade enea,
zerren piedadez zeran betea.

AMPLIUS LAVA ME

Jauna, garbiago egin nazazu,
bekatu mutastoa kendu egidazu.
Badazagut, Jauna, nere kulpea,
ene kontra dago bekatu enea.

TIBI SOLI PECAVI

Bakarrika zindudan zeur ofenditu,
zeure aurrean egin neban bekatu,
zeure i(t)z santuetan justu irten zenzan,
jurga zinzaenak benzutu zinzan.

ECCE ENIM IN INIQUITATIBUS

Konzebitu ninzan maldadeetan,
konzebitu ninduan amak kulpaetan;
beti zenduan, Jauna, egia amatu,
sekretoak neuri manifestatu.

ASPERGES ME DOMINE

Bustnazanean zure graziak
kenduko diraust kulpa guztiak;
zuri nazanean munduan errurik
eztet ez izango neure parerik.

AUDITUI MEO DABIS

Bein izango deu guziz andia
ene belarriak, Jauna, alegria;
orduian ene ezur humillatuak
egongo dirade konsolatuak.

AVERTE FACIEM TUAM

Aparta ezazu zeure bistatik
ene bekatuak presenziatik.
arren, ene kulpa gusti gustiak
borra biza, Jauna, zure graziak.

COR MUNDUM CREA IN ME

Ene bio(t)za, Jauna, garbi ezazu,
ene entrañaetan renoba ezazu
espíritu malizia bagea,
zeure ondasunen deseazalea.

NE PROJICIAS ME

Ez kendu, Jauna, begiok niganik,
kendu ez zaiteala presenziatik.
Ez, Jauna, apartatu bio(t)z enetik
espíritu santua entrañaetatik.

REDE MIHI

Zeure Semearen Aita eternoa,
biurtu egidazu konsolazioa,
fortalezi naza(zu), Jauna, bio(t)zean,
espiritu santuaren karidadean.

DOCEBO INIQUOS

Maestro egingo naiz bekatarien
berri irakasteko zure bideen;
ekarriko ditut bide onera
bekatariak, Jauna, zure legera.

LIBERA ME DE SANGUINIBUS

Ene osasunako Jauna zera zu,
bekatuetatik libra nazazu,
ene minak, Jauna, alaba zaizan,
zure justizia ensalza dazan.

DOMINE LABIA MEA APERIES

Irekiko dezue ene aua
alaba zaizadan, Jaun zerukoa;
zure alabanzaen beti esaten
egongo naiz zein andiak diraden.

QUONIAM SI VOLUISES

Jauna, nai bazendu ofrenda andirik,
ofrenda eder asko ofrezi(t)zerik,
egingo nituan kulpaen ordean,
eztezu ofrendarik borondatean.

SACRIFICIUM DEO

Zurezat ofrenda verdadeiroa
da anima debana kontrizioa;
bio(t)za nai dezue humillatua,
bio(t)z osoa eta bio(t)z santua.

BENIGNE FAC DOMINE

Arren, zera(n) enezat piadosoa,
izan zaite, Jauna, eta mansoa,
zeruko murallaok egin litezen,
asientu u(t)sok beta ditezen.

TUNC ACCEPTABIS

Jerusalen santua dakuskunean,
zeure altura igo dazagunean,
orduana naiko dezue ofrenda andia,
orduana txaaia eta aaria.

TUNC IMPONENT

Zure altura santuaren ganean
zeruan, Jauna, zure aurrean
emango ditugu txaaia gazteak,
txaaia gazte malizia bageak.

GLORIA PATRI

Biz gloria Aitearekin semearentzat,
Biz gloria espiritu santuarentzat,
nola leenean orain eta beti,
sekula gustian gloria izan bidi. Amen.

Orra textoa, orra manuskritoan irakurri dezakeguna. Saia
gaitezen orain sortzen zaizkigun galdera batzuei erantzuten.
korapillo bat edo beste askatzen.

1) Eta lendabiziko galdera, textoari berari dagokiona:
Ez al dago, eman dugun eran, aski ongi? Zer da or argi ez
dagoenik? Zer, naspillaturik? Ezer gutxi. Itz bat bakarra aur-
kitu dugu ez-ezaguna: *Mutastoa*, Latiñezko «a peccato meo
munda me» itzultzerakoan sartu du itzultzaileak: «Bekatu
mutastoa kendu egidazu». Zer esan nai duen gutxi gora bera
antz ematen zaio: orbana, zikiña, erdoia edo olako zerbait.
Baiña gaurkoz ez dugu korapillo au askatzeko argibiderik.

2) Manuskritoak utsik, gaizki idatzitako itzik badu. Baiña K. Etxegarai zanak Biblioteca Nacionalean dagoen manuskrito bera irakurri izan balu eta ez bakarrik Vera erdal-dunak argitaratutako textoa, ez zuen or oztoporik aurkituko. Zeintsuk dira manuskritoak dituen utsak? Letraren bat edo beste oker irakurtzetik sortuak, noski. Esana dugunez, manuskritoak kopiatzaileraren batek egiña dirudi, eta utsik geienak kopiatzailleak egiñak dira. Nonbait itzultzailearen letra batzuk ez zituen ongi berezi ez irakurri. Ori gertatu zaio, esaterako, G eta Q letraekin bein baiño geiagotan; ala bein guendu idatzi ondoren, urrengoan *quendu* dio. Biak, bata nai bestea, jator daude noski; baiña guk emen bardindu egin ditugu. Ona, nola nastu dituen letra biok bein Vera jaunak «Bitatu mutastoa (bekatu mutastoa) guendu equidaçu».

Bost edo sei aldiz naspilla sortu du manuskritoak N eta M letraekin ere: *Bakarrica sindudam, concebitu nincam, maldadeetam, concebitu ninduum, bensutu cincam, eguingo nituum*. Esan bearrik ez, utsok ez zituela Verak zuzendu. I letraren gaiñean doan puntua askotan lekuz aldatua dago, urrutiegi jarrita. Ala *Eguingo* bear zen lekuan, *egunigo* irakurtzen da. Beste letra bi, *e* eta *c*, ongi ez bereizteak, gaizki irakurtzeak ere emandu uts bat edo beste egiteko bidea. Ala, Vera olerkariak «queiz» irakurri zuen lekuan, jatorrago irakurri zezakean «guciz»: *guciz* andia. Ola, guzi eta guzti elkarren ondoan nasturik agertzen dirala? Ez du orrek ezer esan nai. Idazle askok erabilli dituzte bi itzok orrela. Arin, Ordiziako Dotriñaren egilleak, bein baiño geiagotan sartu ditu alkarren ondoan orrialde berean. Orrela, letra bat edo beste tokiz aldatzetik sortutako utsa dalata, manuskritoko *erruric* guk *erurric* jarri dugu. Elurra, edurra eta erurra itz ezagunak eta leku askotan erabilliak dira. Baiña *errura* elurra esateko? Or ere letra baten atzera-aurrerako dantza izan dalakoan gaude. Aitor dezagun, azkenez, itz bat silaba batez luzatu dugula eta taket artean jarri: «Fortaleci naçaçu, Jauna, bioceam», eta ez «fortaleci naça». Texto-inguruak ala eskatzen duelakoan gaude, eta kopiatzaillearen utsen bat da, iñolaz ere.

Eta esan bearrik ote dago? Irakurlea bera oartu da.

aurki, manuskrito onen kopiatzailleak edo Miserere onen euskeratzaileak berak ez dakiela gaur egiten dugun eran, Z eta Iz, S eta Ts bereizten. Silabaren asieran C erabiltzen du beti, eta azkenean, Zeta: bioz, bioça. Guk olakoetan T bat sartu dugu taket artean. Bardin egin dugu Ts bear zen lekuan: U(t)sok.

3) Irugarren galdera. Nongoa da Misere onen euskera? Egillearen izenik ez iñolazko aipamenik ez dugun ezkerro, Vera argitaratzailleak esan zuenez, «versión anónima» dugun ezkerro, nongo euskera duen aztertzeke eskubidea gelditzen zaigu, beintzat. Nongo euskera da emengoa? Gipuzkoakotzat, eta Gipuzkoan Goierrikotzat jo dezakegu, oker andirik egiteko bildur gabe.

Arestian aipatu dugu Arin, Ordiziako Dotriñaren egillea, Miserere au baiño eun bat urte geroagokoa. Eta emengo euskerari Dotriña orretako euskeraren ia antz osozkoa aurkitzen diogu. Batez ere, aditz-jokoetan. Batzuk Bizkaiko aditz-formen kidekoak: Kendu egidazu, egin neban, deban (deuan, dauan), deu (dau, du), apartadu. Guztiok aurkitzen dira Ordiziako Dotriña orretan. Badu beste aditz joko bat Iparraldeko euskeren kutsua duena: *diraust* (kenduko *diraust* kulpa gustiak), kenduko dizkit, esan nai du. Gaur forma auek galduak ote dira? Ez ote zaizkigu arrotz samar egiten? Ala ere, Ordiziako Dotriñak maiz erabiltzen ditu: «Ematen dirautza indar andiak (ematen dizkio indar andiak), irakasten dirautan egiak (irakasten dizkidan egiak), barkatuko dirautazula (barkatu dizkidazula) ofensa guztiak, eta abar. Ordiziako Dotriñako euskeraren bidetik dabil beste izkera askotan: bage, (ez gabe), *irten* eta *igo* aditzak egille egiñak, eta abar. Eta aipamen berezia egin nai dut beste gramatika lege batena, bi itzetan aurkitzen dana (aita, aitea, kulpa, kulpea). *Aita eternoa* batetik, eta *Biz gloria Aitearekin semearentzat* bestetik; *ene kulpea* batetik, eta *ene kulpa gusti gustiak* bestetik. Itz baten bi erabilkera daude or. Ain zuzen, Arinen Dotriñan aurkitzen ez diranak, baiña bai Goierriko bazter askotan, eta aruntzago, Naparroan ere bai, Sakana-aldean gutxienez. Bizkaian beti ezagutu ditugu, asi antziñako kantaetatik eta gaur arte. Baiña Bizkaitik kanpo ere bizi indartsua dute, leku as-

kotxotan. Azkuek Burunda aldeko kantaetan olako formarik argitaratu du ango bazterretan bildurik. Ona bat edo beste: Etxe ontako nagusi jaunak poltsea txintxarriduna. Edo beste: au: San Pedro zeruetako giltzaren jabea, Goizean mezea eta arratsean saldea». Edota: Estudiante Baliarangoa, noiz eman bear dok mezea? (ikus Azkue, Cancionero Vasco, 1.115, 1.056, 974).

Ariñen Dotriñan antzekorik jasotzen ez badugu ere, Ataun aldea, esaterako, olako formak gaur ere bizi-bizirik daude. Ataungo Arratibel beneditarraren *Kontu Zarrak* lekuko. Neska, neskea, soka, sokea, eta abar erruz aurkituko ditu irakurleak or.

Amaseigarren mendeko *Miserere* onetako kulpea eta Aitea ez daude, ez, euskera jatorrean oiñarri gabe, ain zuzen, Gipuzkoako Goierri eta inguruetan. Ortik ere *Miserere* onen euskera ez da ipiñi dizkiogun mugetatik urruntzen.

4) Eta ez daude euskeran oiñarri sendo gabe beste *Miserere* orretako izkera batzuk ere: esaterako, *kulpaen*, *alabanzaen*, *kulpaetan*. Orain maizago entzun oi ditugu *kulpen*, *alabanzen*, *kulpetan* eta ola, baiña ez da ola bazter guztietan, eta ez da ola izan beti. Toki-izenetan baditugu bardintsuak: Landaeta, Landeta. Olaeta, Oleta, eta abar. *Ene* itza nai izenaren aurretik, nai atzetik, erabiltzea ere ez da ain bakana, gure idazleak bezala: bein bekatu enea, eta beste bein ene belarriak, eta ola. Gure literaturak gutxitan jaso duena da, noski, Zeur (zu, zeu esateko). *Zure* ta *zeure*, bata eta bestea noiz nola erabilli, argitu naia sortu da azken aldian. Gure idazleari lege jakinik ez zaiola oartzen esango nuke nik.

5) Azkenez, kasu nabarmengarri bat aipa dezagun, bertso auetan ikusten duguna: «Zure alabanzaen beti esaten egongo naiz, zein andiak diraden». Gaur gure artean beste onela esango genuke: Zure alabanzak esaten. Baiña badirudi gaur Iparraldean tinko gordetzen dan lege ori, aditz-izenarekin norrenkia erabiltzea, lenago zabalduago zegoela. Aipatu dugun bertso ori lekuko.

Bego emen gure azterketa-saiotxoa. Irakurle ikasiak aurrrerago jo dezake beste alderdi batzuetatik euskal-literatura-

lo puska oni begiratzen. Eta lortuko al du beronek antziñako literatura-saillean dagokion tokia, bere egunetako beste lagurkin batean, Iruñeko Amenduz eta olakoekin batean.

Eta esker beroak Ameriketara joan berria dugun Aita Antonio aramaioarrari, Miserere au aurkituaz eta ezagueraziz, gogin digun mesedearen alde.

L. Akesolo

